



IJITO HERRIAREKIKO

EUSKAL ESTRATEGIA

XI. legegintzaldia

2018-2020

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES



AURKIBIDEA

1. Aurrekariak/ 5

Ardatzak eta ekintza-ildoak/ 13

1. Aurrekariak

2003ko abenduan, Eusko Jaurlaritzaren orduko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, ijitoak gainerako euskal herritarrekiko desoreka-egoera nabarmenaren zeudela oharturik, *Euskal Autonomia Erkidegoko ijito herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako kontseilua* sortzea sustatu zuen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua sortzen duen *azaroaren 25eko 289/2003 Dekretuaren* arabera (2003ko abenduaren 5eko EHAA), Kontseilua aholkularitza-organo bat da, ondoko helburuekin: partaidetza eta elkarrizketa bideratzea, ijitoen populazioaren asmoak eta eskaerak jasotzea, eta ijitoen populazioaren erabateko sustapena bultzatzeko proposamenak biltzea; hori guztia, haiei eragiten dieten gaietan partaidetza soziala, kontsulta, informazioa eta aholkularitza ahalbidetzeko, Administrazioaren jarduketan plangintzari dagokienez, eta jarduketa horien jarraipenari bide emateko. Horretarako eratu zen kontseilua, eta organo horren lehen osoko bilkura 2004ko otsailaren 23an izan zen.

Kontseilu horrek -aurrerantzean Ijito Kontseilua, errazte aldera- gizarte-eragileen, ijitoen eta ijitoen aldeko elkarte eta antolamenduen, erakundeen eta herri-administrazioen arteko gogoeta eta koordinaziorako gunea izan nahi du, lan eraginkorragoa lortzeko ijitoen populazioaren erabateko sustapenean eta ijito-kulturaren defentsan eta sustapenean konprometituriko alderdi guztien artean.

Aipatutako 289/2003 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriak Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako Euskal Plana egiteko ardura eman zion Kontseiluari, baita Planaren jarraipenean eta ebaluazioan parte hartzeko eta Planaren ildo estrategikoak eta helburuak garatu eta betetzeari buruzko txostenak eta proposamenak emateko ardura ere.

Agindu hori betez, Kontseiluak *Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako I. Euskal Plana (2004-2007)* landu zuen. Ijito Kontseiluak 2004ko ekainaren 21ean onartu zuen plan hori, eta Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak urte bereko azaroaren 16an.

Epe hori amaitzean, beharrezkotzat jo zen bigarren plan bat lantzea, agerikoa baitzen adierazitako helburuak ez zirela guztiz bete. Hala, *Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako II- Euskal Plana (2008-2011)* landu zen, eta, ondoren, luzatu egin zen plan hori 2012-2013 aldirako.

Aipatutako plan horien indarraldia gainjarri egiten zen legegintzaldiz legegintzaldi, eta, horren ondorioz, X. legegintzaldiaren hasieran, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak (horri atxikita dago Kontseilua eta, beraz, sail horri dagokio eskumen-esparru horri loturiko jarduketak bultzatzea) erabaki zuen erreferentzia-esparrua berriro definitzea, ijito-herriaren erabateko sustapenarekin eta ijito-kulturaren defentsa eta sustapenarekin loturiko politiketara zegoen. Beraz, lehen plana zena *Estrategia* gisa definitu zen, eta haren iraupena legegintzaldiaren berarena izatea onartu zen. Horren guztiaren ondorioz, *Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia* definitu zen, eta Kontseiluak 2013ko azaroaren 20an egindako osoko bilkuran aurkeztu zen.

Planteamendu horri jarraipena emanez, dokumentu honetan jaso da estrategiaren edukia berrikusteko eta berregokitzeko prozesuaren emaitza XI. legegintzaldiak hartuko duen eperako.

1. Ijito Herriaren erabateko sustapenarekin eta parte-hartzearekin loturiko gizarte-politiketarako Europako Esparrua eta Estatuko Esparrua

2004an Ijito Kontseilua martxan jarri zenean, eta urte horren beraren amaieran Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako I. Euskal Plana onartu zenean, estatu mailan apenas zegoen inolako erreferentziarik Ijito Herriaren sustapenarekin eta partaidetzarekin loturiko gizarte-politiken inguruan, 1989an martxan jarritako Ijitoen Garapenerako Programa baino ez. Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoa, Andaluzian emandako urratsei jarraituz, aitzindaria izan zen arlo honetan. Eta gure prozesuaren ia paraleloan Katalunian ere bide berari heldu zioten.

Europar modu bateratuan gizarte kohesionatu eta inklusibo baterantz bidea egiteko beharrak bultzatuta, eta Europar ijitoen populazioaren desoreka-egoera nabarmena egiaztatuta, gutxiengo zabalena izanik gainera, Europako Batzordeak *Ijito herritarrak integratzeko estrategia nazionalen Europako Esparrua, 2020 arte* landu zuen 2011. urtean, Europako Legebiltzarrari, Kontseiluari, Batzorde Ekonomiko eta Sozialari eta Eskualdeen Batzordeari igorritako komunikazioaren bidez.

Europako Esparru horrek ijitoen egoera hobetzeko erronka ezarri zien Batzordeari eta Estatu kideei, agindu sozial eta ekonomiko gisa, eta estatu kideei arlo horretan jarduteko konpromiso argia exijitu zien, *Ijitoak integratzeko estrategia nazionalak* formulatuta, eta

estrategia horietan, honako ekintza-esparru funtsezko hauek ardatz hartuta: hezkuntza, enplegua, etxebizitza eta osasuna.

Espanian, konpromiso horrek ekarri zuen, handik gutxira, *Espainiako Ijito Herritarrak Gizarteratzeko Estrategia Nazionala (2012-2020)* lantzea. Ministroen Kontseiluak 2012ko martxoaren 2an onartu zuen estrategia hori. Estrategia Nazional horrek aberastu egiten du Europako Esparruaren hasierako planteamendua, aurrez aipatutako esparruez gain (hezkuntza, enplegua, etxebizitza eta osasuna), beste ildo estrategiko garrantzitsu batzuk gehitzen dituelako; besteak beste, ijitoen parte-hartzea, genero-ikuspegia zehar-lerrotzat hartzea, diskriminaziorik eza eta tratu-berdintasuna sustatzea, jakintza hobetzea, ijito-kultura sustatzea eta bultzatzea eta sentsibilizazio soziala.

Testuinguru horretan ulertu behar da Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia. Uneotan lantzen ari da estrategia hori XI. legegintzaldirako. Aurrez hasitako prozesu baten oinordeko den aldetik, Europako Esparrua lehenbizi eta Estrategia Nazionala gero, ekarpen aberasgarritzat hartu dira gure lurralde-esparruan ezarri beharreko jardunbideak zehazteko prozesuan. Horrek ez du esan nahi, hala ere, EAerako zehaztutako estrategiak aurrez aipatutako Europako eta Espainiako esparru horien mendekoak direnik.

Europar eta Espainiar Ijitoak gizarteratzeko eta haien sustapen sozialerako politikak lerrokatzea, koordinatzea eta haien jarraipena egitea ezinbestekoa da, eta horretarako sistema bat dago ezarrita. Espainiako estatuan, Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak du horren ardura, Espainiako Harremanetarako Puntu Nazionala deritzonaren bidez. Espainiako Harremanetarako Puntu Nazional horrek lotura lanak egiten ditu Estatuko eta Europar Batasuneko administrazioen artean, eta, besteak beste, honako hauek baliatzen ditu aurrez aipatutako koordinazio- eta jarraipen-eginkizunetarako: Gizarte Zerbitzuetako Konferentzia Sektoriala, Ijito Herriaren Estatuko Kontseilua eta administrazio publikoen arteko Ijito Herriari buruzko Lankidetzako Taldea. Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia ez dagoela beste administrazioen mende esan dugu arestian, baina horrek ez du esan nahi Estatuko gainerako administrazioei strategiaren bilakaeraren berri ematen ez zaienik eta haiekin informazioa eta jakintzak partekatzen ez direnik, Harremanetarako Puntu Nazionalaren eta Lankidetzako Taldearen bidez.

2. Koherentzia EAeko beste estrategia eta plan batzuekin

Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia ezin da EAEn indarrean diren estrategia eta plan sare horretatik bereizitako proposamentzat hartu; aitzitik, egitura horretan txertatuta dago, ijitoak eskubide osoko euskal herritar direla onartzen den une beretik.

Alde horretatik, hasteko eta behin, Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia bat dator guztiz XI. legegintzaldiko (2016-2020) Euskadi 2020 Gobernu Programarekin, eta zehazki, programa horretan jasotako zutabe, ardatz, konpromiso eta ekimen hauetan zehaztutakoarekin: II. Zutabea: Giza Garapena, Gizarteratzea, Berdintasuna eta Kalitatezko Zerbitzu Publikoak; II.4 Ardatza: Integraziorako eta Berdintasunerako Agenda Soziala. Atala: Aniztasuna eta integrazioa errespetatzea. 140. Konpromisoa: Gizarte-ituna immigrazioaren alde eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka; 6. Ekimena: *Ijito herriaren sustapena laguntzea*.

Kontseiluak strategiari emandako izendapenean aipatutako bi helburuak aintzat hartuta, hau da, Ijito Herriaren erabateko sustapena eta partaidetza soziala, Estrategiaren xedea da, gainera, *Gizarteratze Aktiborako IV. Euskal Planarekin (2017-2021)* eta *Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren esparruan jarduteko V. Planarekin* etengabeko hartu-emanen eta kontrasteen garatzea.

Lehenarekin honako hauek partekatzen ditu, besteak beste: gizarteratzearen dimentsio anitzeko ikuskera eta horren ondorio eta eraginak; pertsonen bizi-kalitatea xede eta ardatz hartzea; osasunaren, hezkuntzaren, diru-sarrerak bermatzearen eta gizarte-zerbitzuen arloetan zenbait eskubide eta prestazio izateko eskubide subjektiboa aitortzea; plana nori zuzenduta dagoen jakinda, haiei eta haiek ordezkatzeko dituzten edo haiekin koordinatuta lan egiten duten gizarte-erakundeei arreta komunitarioa emateko eta haien parte-hartzea sustatzeko apustua; hori guztia Euskadiko Hirugarren Sektorako 6/2016 Legean aurreikusitakoarekin ere bat etorri.

Bigarren planarekin, berriz, beste hauek partekatzen ditu: herritartasunaren ikuskera eta pertsonen, kasu honetan ijitoen, oinarritzko identitate-elementua dela onartzea, eta horrekin batera, EAEko herritar izateak ematen dituen eskubide eta betebeharrak guztien jabe izateko bermea, betiere berdintasunean. Plan horrekin partekatzen du, orobat, kultur aniztasunaren ikuskera, kulturartekotasunaren ideian oinarritua. Horren arabera, honela ulertu beharko litzateke kulturartekotasuna: *dibertsitatearen kudeaketa positiboa eta inklusiboa egitea, helburutzat hartuta oraingo gizartearen aldatzea, eta kultura berri bat sortzea subjektu kulturalki desberdinen arteko interrelazioen eta interakzioen ondorioz*. Baita oinarrian dituen printzipioak ere: Berdintasuna, giza eskubideak eta diskriminaziorik eza; gizarte-kohesioa, eta elkartasuna.

Azkenik, baina ez horregatik garrantzia gutxiagorekin, Estrategiak bat etorri behar du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planarekin ere. Honako ikuskera, ideia eta printzipioak partekatzen ditu plan horrekin: genero-ikuspegia, hau da emakume ijitoek jasaten dituzten desoreka eta diskriminazioen aurka agertzea eta horiek gainditzeko laguntzea; interseksionalitatearen ideia, alegia, emakume ijitoek jasaten dituzten desoreka eta diskriminazioak ez direla identitate-ikur baten ondorio, baizik eta haien generoaren eta identitate kultural eta etnikoaren interakzioaren ondorio; eta emakumeen

ahalduntzearen aldeko apustu irmoa, Estrategiak bultzatu nahi dituen xede, tresna eta prozesua den aldetik.

3. Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia baterako printzipioak eta orientabideak XI. legegintzaldian

Europar eta estatuan, baita gure erkidegoan bertan ere, aurrez deskribatutako ibilbidea izateak aukera ematen digu ezaguera partekatuak, orientabide praktikoak eta oinarrizko printzipioak izateko, eta horien bidez Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia hobeto definitzen laguntzeko.

Alde horretatik, komeni da azpimarratzea zeinen garrantzitsua den *Ijitoak gizarteratzeko 10 printzipio komunak* deritzenak aintzan hartzea. Arrakasta izan duten politiketatik abiatuta Europa mailan onartutako printzipioak dira, legegileek eta arduradun politikoek nahiz programak eta proiektuak kudeatzen dituzten profesionalak lan-tresna moduan erabiliak.

Aipatutako *Oinarrizko printzipio komunak* Ijitoak gizarteratzeko Europako Plataformaren bileran aurkeztu ziren lehen aldiz, Pragan, 2009ko apirilaren 24an. 2009ko ekainaren 8an, Gizarte Gaietako ardura zuen Ministroen Kontseiluak bere ondorioetara gehitu zituen printzipioak, eta estatu kideei eta Batzordeari kontuan har zitzaten eskatu zien, ijitoen gizarteratzea sustatzeko jardunbideak zehazte aldera.

Laburbilduz, oinarrizko 10 printzipioek honako hauen garrantzia azpimarratzen dute:

1. Politika eraikitzaileak, pragmatikoak eta ez diskriminatzaileak
2. Berariaz ijitoei begira aritzea baina haiek bakarrik aintzat hartu gabe
3. Kulturarteko planteamendua
4. Ijitoak gizartean erabat integratzeko helburua izatea
5. Genero-dimentsioaren kontzientzia izatea
6. Ebidentzietan oinarritutako politikak transmititzea
7. Tresna komunitarioak erabiltzea
8. Eskualdetako eta tokiko administrazioen parte-hartzea

9. Gizarte zibilaren parte-hartzea

10. Ijitoen parte-hartze aktiboa

Planteamendu hori irakurketa hurbilago batetik osatze aldera, eta X. legegintzaldian garatutako Estrategiaren itxieran jasotako informazioa eta balorazioa oinarritzat hartuta, komeni da orain aurkezten den Estrategia hobetzeko zenbait aukera azpimarratzea:

- › Prozedurari dagokionez, zehazten eta gorpuzten duen Dekretuarekin bat etorritik, Ijito Kontseilua da lan partekatutako, gogoetarako eta azterketarako berariazko gunea EAEn ijitoen erabateko sustapenera bideratutako gizarte-politikei dagokienean. Kontseiluak berak eta haren Batzorde Iraunkorrek, proposamenak egiteko organo ordezkaria den aldetik, eginkizun nabarmena izan behar dute Estrategia definitzeko eta horren jarraipena egiteko.
- › Edukiari dagokionez: Estrategiak jasotako orientabideak eta jarduteko ildoak jardunbide zehatzetan gauzatu beharko lituzkete Legegintzaldian zehar aipatutako arlo bakoitzeko ardura duten eragileek. Esandakoarekin bat etorritik, komenigarria litzateke honako hauek izatea:
 - ✓ Estrategian jasotako enuntziatu bakoitzaren babesean egin beharreko jarduketara bakoitzaren definizio zehatzagoa.
 - ✓ Lortu nahi diren/eskueran dauden adierazleak, jarduketa horien garapenaren gutxieneko jarraipena egin ahal izateko.
 - ✓ Identifikatzeko moduko erreferenteak, Kontseiluarekin eta Batzorde Iraunkorarekin solaskidetza bermatzeko.
 - ✓ Aurreko guztiaren jarraipena egiteko eta informazio irekia eta partekatua eskuan eduki ahal izateko formulak

4. Ijito Kontseilua, parte hartzeko organoa eta Estrategiarako euskarria

Aholkularitza-organo plurala den aldetik, berriz, ijito herriarekiko politika aktibo integrala garatzen laguntzea da Kontseiluaren helburua, ijitoen erabateko sustapenean oinarrituta. Horri begira, erakunde eta eragile hauek hartzen dute parte bertan: Euskal administrazio publikoek eta Euskal Autonomia Erkidegoko ijito eta ijitoen aldeko gobernuz kanpoko erakundeek eta elkarteek. Horrenbestez, Ijito Kontseilua arlo honetan parte hartzeko eta laguntzeko berezko gune irekia da.

Operatiboagoa izateko, Ijito Kontseiluak Batzorde Iraunkor bat du. Organo horrek ordezkartza-izaerarekin jarduten du, eta, besteak beste, honako eginkizun hauek ditu: lan-batzordeak sortzea, Kontseiluaren misioa hobeto betetzeko beharrezkotzat jotzen duenean, eta, horrez gain, lan-batzorde horien jarduna koordinatzea eta bateratzea.

Nahiz eta gaur egun bi lan-batzorde besterik ez diren ari lanean (Ijito Elkartearen Batzordea eta Emakume Ijitoen Batzordea), 289/2003 Dekretuak aurreikusten du gehiago izan daitezkeela, esku hartzeko arlo hauek lantzeko: gizarte-baliabideak, etxebizitza, osasuna, gizarteratzea eta laneratzea, arreta juridikoa eta giza eskubideak, hezkuntza, partaidetza, kultura eta sentsibilizazioa, betiere Batzorde Iraunkorrek proposatuta eta Kontseiluaren osoko bilkurak onartuta. Hain zuzen, hezkuntzaren arloan batzorde bat sortzea aurreikusten da, Kontseiluaren hurrengo osoko bilkuran proposatuko baita horren eraketa.

5. Ijito Herriarekiko Euskal Estrategiaren enuntziatua, garapena eta jarraipena

Orain arte esandakoarekin bat etorritik, XI. legegintzaldirako Ijito Herriarekiko Euskal Estrategia proposamen sorta bat izango da, xede nagusi hau lortzera bideratua; Euskadin Ijito Herriaren erabateko sustapena eta parte-hartze soziala lortzea. Aurreko estrategia Kontseiluaren Batzorde Iraunkorarekin kontrastatuta formulatu da, arestian esandakoaren harira, Euskadin Ijito Herriaren erabateko sustapena eta parte-hartze soziala helburutzat hartuta, eta Kontseiluaren osoko bilkuraren aurrean aurkeztuko da. Hauek dira estrategia hezurramitzen duten hiru ardatz nagusiak:

1. Ijitoen bizi-kalitatea hobetzea
2. Ijitoen partaidetza soziala
3. Bizikidetzeta eta ijito-kulturari buruzko jakintza hobetzea

Ardatz bakoitzerako Estrategiak hainbat ekintza-ildo zehazten ditu, hemezortzi guztira. Ardatz bakoitzaren helburu nagusia lortzeko bidean aurrerapausoak ematea da ekintza-ildo horien xedea.

Ildo bakoitzean, gainera, Estrategia indarrean den urteetan ezarri beharreko proposamen operatiboak jasotzen dira, ahal den neurrian, aurrez adierazitako printzipioak eta orientabideak aintzat hartuta. Kasu batzuetan, jarduketaren helburua da konpondu gabeko beharrezko erantzuna ematea, eta baliabideak, zerbitzuak eta aukerak eskuratzeko ijitoek dituzten oztopoak ezabatzen laguntzea, baliabide eta zerbitzu horiek baitira haien desorekak gainditzeko tresnak. Beste kasu batzuetan, proposamenen eta jarduketaren

xedea da ijitoen identitatea eta kultura onartzeko bidean aurrerapausoak ematea, kulturarteko bizikidetzak hoberako giltzarria den aldetik.

Kasu guztietan aipatzen dira zenbait eragile, eta horien parte hartzea ezinbestekoa da, dela arlo honetan erantzukizuna dutelako, dela informazioa, baliabideak eta abar eskueran dituztelako; izan ere, horiek gabe proposatutako ekinbideen eta jarduketaren bideragarritasuna mugatua litzateke.

Kasu guztietan, Estrategia hau proposamen bizi eta dinamiko gisa formulatu da, bai kudeaketari dagokionean bai ezarpenari dagokionean. Aurreikusitako jarduketak berrikusi eta aldatu egin daitezke Estrategia indarrean den aldirian, eta seguru asko horrela egingo da, eta beste ekintza-ildo batzuk gehituko dira edo hasieran aurreikusitakoak eguneratu. Horretarako, beharrezkoa denean, partaidetza-organoen laguntza izango da, Ijito Kontseiluarena, Batzorde Iraunkorrena eta, horrela dagokionean, lan-batzordeena.

Alde horretatik, Estrategiaren bilakaerari eta jarraipenari buruzko informazioa Kontseiluari helaraziko zaio urtero, osoko bilkurretan, eta Batzorde Iraunkorrean aztertu eta landuko dira eta egingo dira hobetzeko proposamenak.

Estatuan eta Europan aipatutako erreferentziek adierazleak eta egiaztatzeko iturrien sistema bat dute ezarrita ijitoen gizarteratzearen arloan, baina ez dirudi epe motzera adierazle eta iturri horiek eskueran izateko modurik izango dugunik Estrategia honetan aplikatzeko. Bien bitartean, Batzorde Iraunkorrek berak lagundu beharko du lan Estrategian adierazleak sistema bat eta ezarpena neurtzeko sistemak txertatzen. Neurketa-sistema horrek, gutxienez, honako oinarritzko informazio hau jasotzeko beharko du:

- Esku-hartzea partzialki edo osorik gauzatu den
- Zenbateko aurrekontua baliatu den eta nondik etorri den diru hori (partida zehatz bat, zehaztu gabekoa, lehia bidezko konkurrentzian emandako diru-laguntza, diru-laguntza izenduna, zuzena, etab.).
- Irismena, hau da, zenbat hartzaile/onuradun izan diren, sexuaren arabera bereizita, informazio hori eskuratzeko aukera dagoenean.
- Helburuen lorpenari buruzko balorazioa
- ...

Ondoren, XI. legegintzaldi honetarako Ijito Herriarekiko Euskal Estrategian hasiera batean aintzat hartutako edukia aurkezten eta jasotzen dira atalez atal.

Ardatzak eta ekintza-ildoak

1. Ijitoen bizi-kalitatea hobetzea

Helburua: baliabideak, zerbitzuak eta aukerak baliatzeko eta haiek erabat eskuratzeko bidea hobetzea ijito-komunitateari, modu horretan, abiapuntutik gainerako herritarren aldean dituen desberdintasunak gainditu ditzan, hori gertatzea eragozten duten oztopoak kenduta.


Helburu horren ildotik, hauek dira Estrategiaren asmoak:

- 1. Ikasleen **eskola-arrakasta handitzea**, eskola inklusibo baten barruan, neskatilengan eta nesken gan arreta berezia jarritz (*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila*).

Horretarako, proposamen hauek egiten dira:


- 1.1. Ikastetxearen urteko planak hobetzeko helburuen artean estrategia eta jarduera inklusiboak sartzea, ikasle ijitoen emaitzak hobetzea lortzeko.
Helburu horien segimendua eta ebaluazioa egin ahal izateko, adierazle neurgarriak ezarriko dira, haien bidez ikasle horien urteko aurrerapenak egiaztatu ahal izateko; berebiziko arreta jarriko da hizkuntzagaitasunean euskarari dagokionez.
Horretarako, aholkularitza-zerbitzuek (Berritzeguneak) behar duten aholkularitza emango diete ikastetxeei, eta, bestalde, Hezkuntza Ikuskaritzak emaitzen segimendua egingo du.
- 1.2. Hobekuntza Planaren komunitate hezitzailearen prestakuntzaren lerro estrategikoaren barruan, familia ijitoen partaidetza eta inplikazioa lortzeko eta hezkuntzako komunitateko kide guztien arteko lankidetzak hobetzeko jarduerak egitea, gurasoen elkarrekin, batzorde mistoen, gurasoen eskolen eta kanpaina espezifikoaren bidez, besteak beste.
- 1.3. Irakasleen etengabeko prestakuntza-planaren bidez (Prest Gara), ikasle ijitoen prestakuntza sustatzea, eremu hauek aintzat hartuta:
 - Ikaskuntzarako eta bizikidetzarako gainditu beharreko oztopoak.
 - Ijito-kultura, hezkuntza eta familia.
 - Ikasketak azkartzeko eta bizikidetzak hobetzeko estrategiak.
 - Hezkidetzak.
 - ...

- 1.4. Ikastetxeetan senideen prestakuntza-programak bultzatzea, ikasgai instrumentalak garatzeko, hau da: lengoaia, matematika, informazioaren eta komunikazioaren teknikak, euskara,...
- 1.5. Ijitokulturaren presentzia bultzatzea ikastetxeetan.
- 1.6. Ikasle ijitoak euskalduntzea erraztea, zenbat neurri ezarriz horretarako, esate baterako: aldaketak hizkuntza-ereduetan eta eskola-mapan, hizkuntzaren ezagutza indartzeko irakasleak...
- 1.7. Aztertzea zergatik matrikulatzen diren zenbait ikasle ijito ikastetxe jakin batzuetan, eta neurriak hartzea Hezkuntza Saileko lehentasunezko ikastetxe bihurtu daitezzen.
- 1.8. Esperientzia pilotoak bultzatzea, 25 urte baino gehiagokoak unibertsitatean sartzea erraztuko dutenak.
- 1.9. Aurreko ekintza guztietan, zeharka, generodesberdintasunak gainditzeko jarduerak sartzea.

 **2. Genero-indarkeria**ren aurkako tratamendu integrala sustatzea (prebentzioa, harrera eta arreta), ijitoen komunitatearen aniztasuna eta ezaugarri kulturalak errespetatuz (Emakunde).


Horretarako, proposamen hauek egiten dira:

- 2.1. Lan-talde tekniko bat eratzea, eta talde horretatik abiatuta aztertzea nola tratatu indarkeriaren gaia neska eta emakume ijitoen kasuan, emakume ijitoek ez ezik beren seme-alabek ere bizi dituzten egoerak barne sartuz, bai eta izaten ari diren genero-joerak ere. Horretaz gain, hala badagokio, gaur egun indarrean dagoen esku hartzeko eredia hobetzeko proposamenak egitea.
- 2.2. Emakume ijitoek genero-indarkeriaren inguruan duten pertzepzioa kualitatiboki aztertzeko prozesu bat garatzea, eta ikustea zenbateraino bat datorren pertzepzio hori gaur egun gaia lantzeko indarrean dagoen moduarekin.
- 2.3. Emakumezko ijitoei zuzendutako informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak garatzea genero-indarkeriari buruz, lehen aipatutako azterketaren ondorioekin bat etorrira.
- 2.4. Gizonezko ijitoei zuzendutako prestakuntza- eta sentsibilizazio-programak garatzea maskulinitasun berriei eta aitatasun positiboari buruz.

 **3. Prestakuntza, enplegurako aukerak, lan-merkatuan sartzea eta geratzea** hobetzeko zerbitzuen sarea sendotzea; horretarako, *Lanbide*- Euskal Enplegu Zerbitzuarekin koordinatzeko mekanismoak ezarri behar dira.


Horretarako, proposamen hauek egiten dira:

- 3.1. Ijitoei orientazio espezializatua emateko programak finkatzea.
- 3.2. Prestakuntza-programak ezartzen laguntzea, ijitoen erakunde sozialak ikastetxe homologatuen sarearekiko lankidetzaren bitartez.

-  **4. Osasuna sustatzeko programak** diseinatzea, garatzea eta ebaluatzea. Programa horietan, osasun komunitateeragile baten figura sortzea jasoko da (*Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila*).


Horretarako, proposamen hauek egiten dira:

- 4.1. Paziente Aktiboa/Osasun Eskola programa finkatzea eta zabaltzea.
- 4.2. Emakume ijitoen osasuna hobetzeko kanpaina espezifikokoak garatzea.
- 4.3. Erakunde Sanitario Integratuaren mailan erreferenteak sartzea, komunitate ijitoarekiko programen eta zerbitzuen erlazioan sor daitezkeen zailtasunak prebenitzen eta gainditzen errazteko.
- 4.4. Osasun komunitate-eragilearen figura erabat garatzea.

-  **5.** Ijitoen **bizitokiaren** kalitatea hobetzera zuzendutako jarduerak sustatzea (*Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Saila*).


Horretarako, proposamen hauek egiten dira:

- 5.1. Ijitoen eta ijitoen aldeko elkarrekin etxebizitzaren parke publikoaren kudeaketan lankidetzan aritzeko formulak aztertzea.

-  **6.** Ijitoen eta ijitoen aldeko elkarrekin **Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (RGI delakoa)** hobetzeko prozesuan parte hartzea erraztea (*Enplegurako Euskal Zerbitzua, Lanbide*).

Horretarako, proposamen hauek egiten dira:

- 6.1. Lurralde historiko bakoitzerako solaskideak eta solaskidetzeta-prozedurak definitzea, elkarrekin antzeman ditzaketen ijito-komunitatearen arazoak aztertzeke eta kudeatzeko.

-  **7. Justizia** Administrazioarekiko lankidetzan aritzea, gako kulturalak kontuan hartzekoak direnean auzietan eta/edo esku-hartzeetan (*Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justizia Saila*).

Horretarako, proposamen hauek egiten dira:

- 7.1. Honako balorazio-irizpide hau aintzat hartzea EAEn zigortu edo preso daudenak gizarteratzea eta laneratzea bultzatzeko proiektuei diru-laguntzak ematerakoan: gizarteratzeko zailtasunak dituzten kolektiboak (besteak beste, ijito-herriari) zuzentzen zaizkien proiektuak izatea.

8. Ertzaintzarekin erlazio positiboa eratzten aurrera egitea (*Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila*).

Horretarako, proposamen hauek egiten dira:

- 8.1. Ertzaintzarekin solaskidetza azkarra eta zuzena izateko bideak erraztea, ertzain “hurbiltzaileak” baliatuta horretarako.
- 8.2. Ijito-komunitatearen kultura-gakoei buruzko prestakuntza ematea ertzainei.
- 8.3. Ijito-komunitatea Ertzaintzaren Komunikaziotik prebenitzea programan sartzea.

9. Ijitoekin lan egiten duten **erantzukizun publikoko zerbitzuen profesional** guztiak egungo ijitoen errealitatera eta kulturara hurbiltzea, aurreiritziak eta estereotipoak gainditzen aurrera egiteko, ijitoekiko harremanak hobetzen jarraitzeko, eta, horrenbestez, zerbitzuen kalitatea ere bai (*Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila*).

Horretarako, proposamen hauek egiten dira:

- 9.1. Euskal Autonomia Erkidegoko ijito-komunitatearen ezaugarri historiko, kultural eta soziodemografikoetara gerturatzea Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak, Biltzen zerbitzuaren bitartez, kudeatzen duen prestakuntza-eskaintzan. Horretarako, lehentasuna emango zaio Ijito Herriaren Kontseiluan ordezkariak dituzten ijitoen elkarteekiko lankidetzan aritzeari.
- 9.2. Ijito-komunitatearen ezaugarri historiko, kultural eta soziodemografikoetara gerturatzea erakunde ofizial eskudunek EAEko zerbitzu publikoetako profesionali egiten dieten prestakuntza-eskaintza (IVAPena, adibidez).

10. Kontseiluari lotutako eragileekin lankidetzan, **segimendua eta zabalkundea egiteko prozedurak** eratzea: estrategia honi dagokionez EAEn egindako jarduerena, jardunbide egoki interesgarriena eta jakintza eta jardunbideak hobetzen laguntzen duen beste edozein informazio osagarriena (*Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila*).

Horretarako, proposamen hauek egiten dira:

- 10.1. Estrategiaren esparruaren barruan garatutako jardueraren segimendua egiteko urteko txosten bat egitea, zeina Kontseiluari helaraziko baitzaio, dagokion osoko bilkuren bidez. Batzorde Iraunkorra oinarrizko erreferentetzat izango du, hura aztertzeko eta hobekuntza proposamenak formulatzeko.

- 10.2. Adierazleen sistema adostu baten definizioan aurrera egitea, haren bidez garatutako jardueren segimendu zehatzagoa egin ahal izateko.
- 10.3. Herritar Ijitoak Espainian Gizarteratzeko Estrategia (2012-2020) baloratzeko eta haren segimendua egiteko esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoan garatutako jardueraren segimendua egiteko behar den informazioa ematea.
- 10.4. Herritar ijitoek gainerako biztanleen aldean abiapuntu dituzten desberdintasunei dagokienez errealitatea eta premiak ezagutzen aurrera egiten laguntzen dituzten ikerketa tematikoak egitea, eta haien zabalakundea sustatzea eta erraztea.
- 10.5. Herritar ijitoen errealitatearekin eta premiekin lotutako jardunaldi teknikoak egitea sustatzea eta erraztea.
- 10.6. Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseiluaren eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren arteko lankidetzafornulak ezartzea, lehen aipatutako jardueretarako.

2. Ijitoen partaidetza soziala

Helburua: Ijitoen partaidetza soziala erraztea, bizitza publikoaren eremu guztietan.

Helburu horren ildotik, hauek dira Estrategiaren asmoak:

- **11.** Ijitoen elkarte-mugimendua babestea eta hari laguntza teknikoa ematea, haren ahalduntzea sustatzeko eta ijitokomunitatearengan eragina duten gaiak lantzen dituzten **kontsulta- eta lankidetza-eremuetan** parte har dezan errazteko (foro, sare eta antzekoetan) (*Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila*).


Horretarako, proposamen hauek egiten dira:

- 11.1. Ijito-erakundeak ordezkaturik egon daitezkeen kontsulta- eta lankidetza-espazioak handitzera zuzendutako ekintza-diagnostikoa eta proposamena egitea.
- 11.2. Ijito-herriaren elkarte-mugimenduak tokiko eta lurraldeko kontseiluetan parte hartzea erraztea.
- 11.3. Ijito-herriaren elkarte-mugimenduak bigarren eta hirugarren mailako sareetan eta foroetan parte hartzea erraztea.
- 11.4. Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren erabateko sustapenerako eta partaidetza sozialerako Kontseilua finkatzea, haren kontsulta-funtzioari dagokionez, gizarteari oro har zuzentzen zaizkion proposamenak eztabaidatzeko espazio egokia den aldetik.

- **12.** Ijitoen eta ijitoen aldeko elkarrekin profesionalen eta boluntarioen **gaitasuna hobetzea** (*Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila*).

Horretarako, proposamen hauek egiten dira:

- 12.1. Diagnostiko bat egitea, elkarte bakoitzaren azterketatik abiatuta, premia komunen mapa bat osatzeko, eta diagnostiko hori abiapuntutzat hartzen duen prestakuntza-eskaintza sortzeko.
- 12.2. Ijitoen elkartearen eremuan ibilbide profesional luzea izanik behar beste-ko kualifikazio akademikorik ez dutenei bizialdi osoko ikasketako sistemak eskaintzen dizkieten aukerak aztertzea, esperientzia aitortze aldera eta eskarmentu profesionala kreditatze aldera.

 **13. Emakume ijitoak** ikustarazten eta aitortzen laguntzea eta haiek **ahalduntzea, banaka zein kolektiboki** (Emakunde).

Horretarako, proposamen hauek egiten dira:

- 13.1. Emakume ijitoei banaka zein kolektiboki ahalduntzeko prestakuntza eskaintzea.
- 13.2. Emakume eta gizon ijitoen arteko berdintasuna bultzatzeko jarduerak garatzea, bai eta ijitoak direnen eta ez direnen artekoa ere.
- 13.3. Emakume ijitoek esparru eta foro desberdinetan parte har dezaten sustatzea.
- 13.4. Emakume ijitoen elkarte-mugimenduek erakundeetan ordezkatzeko eta haiekiko solaskidetza bultzatzeko laguntza ematea.
- 13.5. Emakume ijitoen irudi positibo eta modernoa bultzatzea, batez ere komunikabideek zabaltzen dituzten estereotipoei eta irudi okerrari aurre egiteko.

3. Bizikidetza eta ijito-kulturari buruzko jakintza hobetzea


Xedea: ijito-herriaren kulturari eta historiari buruzko jakintza eta ijito-nortasunaren onarpena areagotzen laguntzea, gakoak baitira kulturen arteko bizikidetza hobetzeko.

Helburu horren ildotik, hauek dira Estrategiaren asmoak:

-  **14.** Urtero, azaroaren 16an, **Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Eguna** ospatzea (*Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila*).

Horretarako, proposamen hauek egiten dira:

- 14.1. Urtero ekitaldi instituzional bat egitea, parekotasunirizpideak baliatuta ordezkartzari eta helburuei dagokienez, besteak beste, eta Ijitoen Kontseiluburutzatik sustatzea agintari publiko nagusiek parte har dezatela ekitaldian.
- 14.2. Euskal Autonomia Erkidego osoan, azaroaren 16an, Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Egunaren ospakizuna sustatzea, hiru lurralde historikoetan eta tokiko eremuan.
- 14.3. Topaketa, jardunaldi edo jarduera bat antolatzea Emakume Ijitoen Batzordearen eta Kontseiluaren ordezkartza sozialarekin elkarlanean
- 14.4. Laguntza ematea ijito-komunitatearentzat garrantzizkoak diren beste ekitaldi eta efemeride batzuei: Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna, Ijitoen Holokaustoko Biktimak Gogoratzeko Europako Eguna, Erromanieraren Nazioarteko Eguna...

-  **15.** Ijito-herriaren kultura eta historia ezagutzera eta ijitoidentitatea aitortzeko **komunikazio-estrategia** diseinatzea (*Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saila*).

Horretarako, proposamen hauek egiten dira:

- 15.1. Bizikidetza hobetzeko eta ijitoen kultura ezagutzeko eta aitortzeko dau den premiak eta lehentasunak diagnostikatzea.
- 15.2. Espazio bat definitzea *Zurrunmurrueen Aurkako Sarearekin (ZAS)* eta beste antzeko eragile batzuekin lankidetzan aritzeko, ijitoei eta ijito-komunitateari buruzko estereotipoen eta aurreiritzien aurkako borrokan.
- 15.3. Ijito-herriaren ikuspegia txertatzea eta ikusaraztea Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak eta Eusko Jaurlaritzak kulturartekotasunaz egiten duten komunikazio instituzionalean.

- 15.4. Ijito-herriaren ikuspegia txertatzea Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak edo Eusko Jaurlaritzak komunikabideekin herritartasunaren eta bizikidetzaren eremuan ijitoei dagokienez ezar ditzaketen jardunbide egokien proposamenetan eta akordioetan.



- 16. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eta sare sozialak** erabiltzea sustatzea, tresna egokiak diren aldetik bai Euskal Autonomia Erkidegoko ijitokomunitateari buruz eta antzeko gaiei buruz informazio garrantzitsua zabaltzeko, bai eta gai horien gainean sentsibilizatzeko ere (*Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila*).

Horretarako, proposamen hauek egiten dira:


- 16.1. Euskal Autonomia Erkidegoko ijitoen eta ijitoen aldeko elkarre-mugimenduekin lankidetzan, sare sozialetan erabili beharreko komunikazio-estrategiak diseinatzea eta haien ezarpena erraztea, ijito gazteak eragile nagusitzat joz.



- 17. Tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako *Eraberean* Sarea** finkatzea, eta haren ezagutza eta erabilpena zabaltzea (*Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila*).

Horretarako, proposamen hauek egiten dira:

- 17.1. Sarea bera ezagutaraztea, baita sareak eskaintzen dituen aukerak ere, EAEko ijitoen eta ijitoen aldeko elkarre guztiei eta haien ohiko laguntzaileei.
- 17.2. Bazkideei eta ijitoen elkarre-mugimenduetatik eta ijitoen aldeko erakundeetatik gertu daudenei funtsezko eskubideei buruzko informazio- eta sentsibilizaziojarduerak eskaintzea.
- 17.3. Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren inguruan oinarritzko prestakuntza eskaintzea Kontseiluaren barruko ijitoen eta ijitoen aldeko elkarre.
- 17.4. Tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren inguruan oinarritzko gida bat editatzea.
- 17.5. Ijitoaren kontrako jarrerari buruz sentsibilizatzeko eta prestakuntza emateko jarduera espezifikoa garatzea.

-  **18.** Berriaz integratzea **ijitoen kultura eta historia** kulturapolitikaren ardura duten administrazioen ekintzaeremuaren barruan (*Kultura eta Hizkuntza Politika Saila*).